

## **EUSKARALDIKO BATZORDEAREN IDATZIA:**

**EUSKARALDIA** iritsi zaigu. Euskal Herriko txoko desberdinetan gaur euskararen aldeko mugimendu kolektibo bat martxan jarri da. 15 egunez gure egunerokoan euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatzeko, gure ohiturak aldatzeko eta euskararen erabileran sendotzeko dinamika baten aurrean gaude. ***Eta Lezon zer? Herritarrok Euskaraldian parte hartzeko prest zaudete?***

**ERRONKA PERTSONAL** handia suposatzen du dinamika honek guztiontzat. Gure egunerokotasunetik eta erosotasunetik, konfort egoeratik ateratzea eskatzen digun ARIKETA PERTSONALA. Baina aldaketak egin nahi baditugu euskararen arloan, lan pertsonal hau egitea beharrezkoa zaigu. Gure beldur eta lotsei aurre eginez, izan Ahobizi, izan Belarriprest. ***Lezoarrok, Erronka pertsonalari heltzeko prest zaudete?***

Guztiantzat da Erronka. Lana. Esfortzua. Baina erronkak errazago gaintitzen dira, gure norabidean arraunean dabiltzanekin elkartzen bagara. **ERRONKA KOLEKTIBO** baten aurrean gaude, beraz, eragin dezagun elkarrekin. Sentitu dezagun, ez gaudela bakarrik borroka honetan. Sentitu dezagun ondoan laguna, babesa, eta lana arinagoa izango da, motibagarriagoa eta eraginkorragoa. Denon artean errazago lortuko dugu Lezo euskaldun bat eraikitzea. ***Lezoarrok, Ariketa kolektibo honetan parte hartzeko prest zaudete?***

Indartu dezagun Lezon Euskaraz bizi nahi dugunon komunitatea. Erronka pertsonaletik hasi eta norbanakoaren ahalegina kolektiboki konpartituz. Batu ditzagun indarrak eta sendotu dezagun euskara herrian. Eman diezaiogun Euskarari behar duen balioa, gure nortasunaren adierazle baita. Izan gaitezen kontziente egiten eta esaten dugunarekin. Jarri dezagun arreta berezia erabileran. Entzun dadila Lezoko kaleetan euskara lau haizeetara eta gure eztarrietatik ateratzen diren hitzak izan daitezela euskaraz. Irauli ditzagun datu eta estadistikak.

*Demostratu al dezakegu Lezon euskaraz bizitzeko gai garela? Esan al dezakegu ozen Lezon euskaraz bizi nahi dugula?*

Gora Lezo! Gora Euskara! Gora Lezo euskalduna! Gora Euskal Herri Euskalduna!

Lezoko Euskara Batzordea